



## JOLASTOKI 2022-2023

Interesa duten familiei jakinarazi zaie 2022-2023 ikasturterako Jolastoki Zerbitzuan izena emateko epea irekiko dela.

Zerbitzu hau 1 eta 12 urte bitarteko haurrentzat da eta egunean gehienez ordubete baliatu ahal izango dute zerbitzu horretaz. 1 eta 3 urte bitarteko haurrek heldu batekin egon beharko dute. Orduko 20 haur egongo dira gehienez eta 8 gutxienez.

Izena emateko epea amaitu ondoren eta izena eman dutenen **kopurua ezarritako gehienezko plaza kopurua baino handiagoa bada, esleipena zozketa bidez egingo da.**

**ORDUTEGIA:** Asteleheneretik ostiralera, 16: 30etik 19: 30era (ordutegi-txandak antolatuta ahal izango dira, matrikulatzeko adinaren arabera)

**Inskripzioa formalizatzeko, zozketa egin eta zazpi (7) egun balioduneko epean, matrikularen ordainketa egin beharko da.** Aguraingo Udalaren kontuetan egindako diru-sarreraren egiaztagiria aurkeztu beharko da, eta zehaztu beharko da Jolastokiko zerbitzuagatiko diru-sarrerari buruzkoa dela, haurraren izen-abizenak gehituta.

Matrikularen prezioa pertsonala eta besterenezina da, eta zenbatekoa ez da itzuliko Jolastoki zerbitzua amaitzen denean, ezta adingaberen batek zerbitzuan baja ematen badu ere.

Jolastoki	ERROLDATUTA	
	Maticula ( edo hilabeteko kuota) Lehenengo haurra	Matrikula (edo hilabeteko kuota) Gainontzekoak
	22,73 euros/curso	17,56 euros/curso
	ERROLDATUTA GABE	
Maticula ( edo hilabeteko kuota) Lehenengo haurra	Matrikula (edo hilabeteko kuota) Gainontzekoak	
25,83 euros/curso	17,56 euros/curso	

Epea amaitu ondoren, haurrik apuntatu nahi izanez gero, Udalarekin harremanetan jarri beharko da, plazarik dagoen eta libre dagoen jakiteko.

Zerbitzua azaroaren 7tik maiatzaren 26ra izango da.

## IZENA EMATEKO EPEA: URRIAREN 24ra ARTE